



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko maiatzaren 5a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernua sustatzen ari den suspertze eta berreraikuntza ekonomiko eta sozialerako planari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, dirutza, ondare eta enpresa-mozkin handientzako zerga berri bat ezartzeari buruzkoa, Covid-19aren osteko berreraikitzeak eraginen dituen gastuak finantzatzeko aldera. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (3. or.).
- Galdera, autonomia erkidegoentzako itzuli beharko ez liratekeen funtsak iragarri izanari buruzkoa, baldin eta udalen gerakina Ogasun Ministerioaren esku geratzen bada. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (4. or.).
- Galdera, itzuli beharko ez den 16.000 milioi euroko finantzaketa-funtsari eta, hori dela eta, Nafarroak jasoko lukeen diruari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez den aprobeixatu Nafarroak proba diagnostikoak egiteko zeukan ahalmena. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, toki entitateetako merkataritza- eta ekonomia-jarduera leheneratzen laguntzarren kontratazio-espeditzeak berraktibatzeak aurreikusitako neurriak buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, zahar-etxe eta desgaitasun-zentro bakoitzean egindako testen, positiboak eta hildakoen (diagnostikoarekin nahiz diagnostikorik gabe) datu gaurkotuei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Covid-19aren krisia hasi zenetik gaur arteko indarkeria matxistaren gaineko datuei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (7. or.).
- Galdera, pertsonen oinarritako beharrezkoak bermatzeko dirusarrerak emateari eta Tuteran, Iruñean eta Zangozan errenta bermatua izapidetzeko denbora errealarari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (8. or.).
- Galdera, egoitzetan egindako esku-hartzei, detektatutako balizko zabarkeriei eta epe ertainerako kudeaketari begira ateratako ondorioei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (8. or.).

- Galdera, Covid-19aren krisitik heldu diren ondorio ekonomikoei aurre egiteko europar funts berezietan Nafarroak parte hartzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, hizkuntza eskolen azterketei buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (10. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernua sustatzen ari den suspertze eta berreraikuntza ekonomiko eta sozialerako planari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernua sustatzen ari den suspertze eta berreraikuntza ekonomiko eta sozialerako planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zeintzuk dira Nafarroako Gobernua sustatzen ari den suspertze eta berreraikuntza ekonomiko eta sozialerako planaren gakoak?

Iruñean, 2020ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, dirutza, ondare eta enpresa-mozkin handientzako zerga berri bat ezartzeari buruzkoa, Covid-19aren osteko berreraikitzeak eraginen dituen gastuak finantzatzeko aldera.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, dirutza, ondare eta enpresa-mozkin handientzako zerga berri bat ezartzeari

buruzkoa, Covid-19aren osteko berreraikitzeak eraginen dituen gastuak finantzatzeko aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honek 2020ko maiatzaren 7an eginen duen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

2007tik hona balio erantsiaren gaineko zerga izan da diru-bilketari dagokionez gehien hazi dena. Pertsona fisikoen errentaren gainekoa ere hazi da, eta sozietateen gainekoaren bidezko diru-bilketa, aldiz, herena jaitsi da. Ondarearen gainekoaren zerga-tasa oso txikia da.

Erran nahi baita langileek eta kontsumitzaileek hartzen dutela bere gain zerga bidezko diru-sarreen pisurik handiena.

IEk berez aldeztu du fiskalitatea justuagoa eta progresiboagoa izan dadin, baina bizi dugun egoera honetan, non diru-sarrerak igotzea eskatuko duen gizartearen, ekonomiaren, industriaren nahiz lanaren arloko berreraikitze-prozesu bat abiarazi behar baita, are beharrezkoagoa da erreforma fiskal justu eta ekitatezko bat taxutzea; zehazki, aberastasunaren eta dirutza handien gaineko zerga justu bat.

Nafarroako Gobernua aztertzen ari al da dirutza, ondare eta enpresa-mozkin handientzako zerga berri bat ezartzea Covid-19aren osteko berreraikitzeak eraginen dituen gastuak finantzatzeko?

Iruñean, 2020ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, autonomia erkidegoentzako itzuli beharko ez liratekeen funtsak iragarri izanari buruzkoa, baldin eta udalen gerakina Ogasun Ministerioaren esku geratzen bada.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, autonomia erkidegoentzako itzuli beharko ez liratekeen funtsak iragarri izanari buruzkoa, baldin eta udalen gerakina Ogasun Ministerioaren esku geratzen bada.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan astean, Gobernu zentralak iragarpen kontrajarriak egin zituen berreraikitze planarekin lotutako neurriak direla-eta; halatan, Sánchez lehendakariak autonomia erkidegoentzako itzuli beharko ez liratekeen funtsak iragarri zituen bitartean, Montero ministroak iragarri zuen ministerioak bere gain hartuko zuela udal itsulapikoaren kontrola eta, horrenbestez, Estatu osoko udalen gerakinena.

Bi neurri horiek aldi berean egin izana alde batera utzita, Nafarroako Gobernuak lehendakariak zer jarrera izanen du baldin eta erkidegoentzako funtsen promesan aurrerabidea egiteko inposatzen bazaigu gure udalen gerakina Ogasun Ministerioaren esku geratzea?

Iruñean, 2020ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, itzuli beharko ez den 16.000 milioi euroko finantzaketa-funtsari eta, hori dela eta, Nafarroak jasoko lukeen diruari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, itzuli beharko ez den 16.000 milioi euroko finantzaketa-funtsari eta, hori dela eta, Nafarroak jasoko lukeen diruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dadin eta Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun dezan 2020ko maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran:

Espainiako Gobernuak lehendakari Pedro Sánchezek atzo, maiatzak 2, iragarri zuen itzuli beharko ez den funts berezi bat onetsiko dela, 16.000 milioi eurokoa, koronabirusaren krisia dela-eta "berreraikitze sozial eta ekonomikorako", autonomia erkidegoei zuzendua.

Haren esanetan, horren helburua da "ez dadin autonomia erkidego bakar bat ere gelditu atzean, pandemiak lurralde bakoitzean duen inpaktua gorabehera".

Kazetarien galderei erantzunez esan zuen "16.000 milioi euro horiek estaliko luketela osasun gastuetan joan diren 10.000 milioi euroren inpaktua, administrazio guztiak, gobernu zentrala eta autonomia erkidegoetako gobernuak hori ari baitira une honetan erabiltzen beren finantza-ahalmenaren parterik handiena. Hortaz, 10.000 milioi osasun gastuan; 1.000 milioi gizarte gas-

tuan, zeinei gehitu behar baitzaizkie autonomia erkidegoei azken asteotan emandakoa (gogora dezagun krisiaren hasieran berean emandako 300 milioi euroak); eta autonomia erkidegoei emanen litzaizkiekeen 5.000 milioi euro, ekonomia jardueraren jaitsieraren ondorioz".

Bestalde, Pedro Sánchezek autonomia erkidegoetako lehendakariari gaur –haiekin izan duen zortzigarren bileran– iragarri die, zenbait agentziak informatu dutenaren arabera, 2020rako aurreikusitako defizita % 0,2n mantenduko duela, gaur agindu dien 16.000 milioi euroren funtsa, itzuli beharko ez litzatekeena, ez dela defizit horretan sartuko.

Gaur ere, maiatzak 3, Ogasuneko ministroak adieraz du ez dela "mailegu bat, ezpada autonomia erkidegoek jasoko dituzten transferentzia zuzenak, itzuli beharko ez dituztenak". Ministroak argi utzi du funts hori "gehigarria" dela autonomia erkidegoen finantzaketarekiko eta aparteko likidezia-mekanismoekiko, "indarrean" jarraitzen baitute erabat.

Testuinguru horretan, ez da garbi gelditu 16.000 milioi euroko funts hori autonomia erkidego guztiei zuzendua den, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Autonomia Erkidegoa barne; izan ere, bi horiek ez daude autonomia finantzaketako sistema komunaren barruan, Hitzarmen eta Itun Ekonomikoaren legeak araututako sistema berekia dutelako.

Gauzak horrela, honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuak lehendakariari:

Nafarroako Foru Komunitateak baliatu ahal izanen du itzuli beharko ez den 16.000 milioi euroko finantzaketa-funts hori, zeina Ministroen Kontseiluak lege dekretu bidez onetsiko bide baitu maiatzaren 5ean? Hala balitz, Nafarroako Gobernuak kalkulatu al du zenbat diru jasoko lukeen Nafarroak?

Iruñean, 2020ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, toki entitateetako merkataritza- eta ekonomia-jarduera leheneratzen laguntzearen kontratazio-espeditenteak berraktibatzeke aurreikusi diren neurriei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, toki entitateetako merkataritza- eta ekonomia-jarduera leheneratzen laguntzearen kontratazio-espeditenteak berraktibatzeke aurreikusi diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Krisi sanitarioaren ondorioetako bat da gure toki entitateetan izanen duen eragin sozial eta ekonomikoa.

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu nahi ditu, toki entitateetako merkataritza- eta ekonomia-jarduera leheneratzen laguntzearen kontratazio-espeditenteak berraktibatzeke?

Iruñean, 2020ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, jakiteko zergatik ez den aprobetxatu Nafarroak proba diagnostikoak egiteko zeukan ahalmena.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zergatik ez den aprobetxatu Nafarroak proba diagnostikoak egiteko zeukan ahalmena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Denbora honetan guztian zergatik ez da aprobetxatu Nafarroak proba diagnostikoak egiteko zeukan ahalmena?

Iruñean, 2020ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, zahar-etxe eta desgaitasun-zentro bakoitzean egindako testen, positiboen eta hildakoen (diagnostikoarekin nahiz diagnostikorik gabe) datu gaurkotuei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, zahar-etxe eta desgaitasun-zentro bakoitzean egindako testen, positiboen eta hildakoen (diagnostikoarekin nahiz diagnostikorik gabe) datu gaurkotuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan, Gobernuko lehendakariak ez baitzien erantzunik eman Covid-19aren krisia dela-eta Parlamentuaren egoitzan egindako ager-raldietan.

Zeintzuk dira zahar-etxe eta desgaitasun-zentro bakoitzean egindako testen, positiboen eta hildakoen (diagnostikoarekin nahiz diagnostikorik gabe) datu gaurkotuak? Honako xehetasun hauek ematea eskatzen dut: zentro bakoitzean zer egu-netan egin zen testa, egindako test-kopuru erreala eta erabiltzaileen nahiz langileen kopuru osoareki-ko ehunekoa, positibo sintomatikoak eta asinto-matikoak.

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Covid-19aren krisia hasi zenetik gaur arteko indarkeria matxistaren gaineko datuei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Covid-19aren krisia hasi zenetik gaur arteko indarkeria matxistaren gaineko datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentuak idatziz erantzun ditzan, Gobernuko lehendakariak ez baitzien erantzunik eman Covid-19aren krisia dela-eta Parlamentuaren egoitzan egindako agerraldietan.

- Covid-19aren krisia hasi zenetik gaur arte zenbat dei, kontsulta, arreta, salaketa, larrialdiko harrera-jarduketa eta abar egin dira indarkeria matxistak eraginda?

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, pertsoneri oinarrizko beharrianak bermatzeko dirusarrerak emateari eta Tuteran, Iruñean eta Zangozan errenta bermatua izapidetzeko denbora errealarri buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, pertsoneri oinarrizko beharrianak bermatzeko dirusarrerak emateari eta Tuteran, Iruñean eta Zangozan errenta bermatua izapidetzeko denbora errealarri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako Departamentuak idatziz erantzun ditzan, Gobernu lehendakariak ez baitzuen erantzunik eman Covid-19aren krisia dela eta Parlamentuaren egoitzan egindako agerraldietan.

- Nafarroako Gobernuak ziurtatu al dezake beren oinarrizko beharrianak bermatzeko beharrezkoak dituzten dirusarrerak ematen ari zaizkiena pertsona guztiei?

- Tuteran, Iruñean eta Zangozan zenbat denbora erreala kostatzen ari zaie errenta bermatua izapidetzea errenta bermatua lehendabiziko aldiz eskatu duten pertsoneri?

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, egoitzetan egindako esku-hartzei, detektatutako balizko zabarkeriei eta epe ertainerako kudeaketari begira ateratako ondorioei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, egoitzetan egindako esku-hartzei, detektatutako balizko zabarkeriei eta epe ertainerako kudeaketari begira ateratako ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako Departamentuak idatziz erantzun ditzan, Gobernu lehendakariak ez baitzuen erantzunik eman Covid-19aren krisia dela eta Parlamentuaren egoitzan egindako agerraldietan.

- Egoitzen egoeraren kudeaketari dagokionez, zer esku-hartze egin da eta balizko zer zabarkeria detektatu dira?

- Nafarroako Gobernuak zer ondorio atera ditu horiek epe ertainean kudeatzeari begira?

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Covid-19aren krisitik heldu diren ondorio ekonomikoei aurre egiteko europar funts berezietan Nafarroak parte hartzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Covid-19aren krisitik heldu diren ondorio ekonomikoei aurre egiteko europar funts berezietan Nafarroak parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

Europako Batzordearen web-orri ofizialean suspertze-plan bateratuari buruzko informazio bat argitaratu zen apirilaren 24an, zeina erakunde horrek prestatuko duen Europar Batasunaren epe luzerako aurrekontu berritan oinarrituko baita.

Horren arabera, apirilaren 23an egindako bideokonferentziaren ondoren, Europako agintariek Europako Batzordeari agindu zioten krisiari erantzun kolektibo bat eman diezaion; izan ere, ebaluazio ekonomiko sakonaren testuinguruan, Europako aurrekontua –Suspertze Funtsari estu lotua– denborak berretsi beharreko fidagarritasuna izanen duen tresna bat izanen da, susperraldiak ezinbestean eskatu dituen eginkizunen muntari aurre egiteko gai.

Informazio horretan orobat adierazten zen finantzaketaren zatirik handiena inbertsio ekono-

mikoak egitera eta kohesio ekonomikoara bideratuko direla, Europar Batasunaren erresilientzia eta autonomia indartzeko, politika modernoak –esaterako, Europako Itun Berdea eta trantsizio digitala– sustatu bidenabar.

«EBaren epe luzerako hurrengo aurrekontua, hemendik zazpi urtera bitarteko gure hurrengo aurrekontua, koronabirusaren krisiak eragindako egoera berrira egokitu beharra dago. Horren ahalmena areagotu beharra dago, Europar Batasun guztian beharrezkoa den inbertsioa egiteko», adierazi zuen Von der Leyen lehendakariak. «Ahalegin hoien guztiaren xedea merkatu bakarra babestea da. Inbertsioak lehen urteetan metatu beharko dira, eta dirulaguntzen eta maileguren arteko oreka aurkitu beharko da».

Eurotaldeko lehendakari Mario Centenok, berriz, honako hau adierazi du: “neurri ekonomikoaren pakete inoiz ez bezalako handiena eta anbiziotsuena lantzen egon gara, koronabirusaren krisia mozteko”. Oraindik ere behin betiko onespenik ez duen pakete hori zertzeko Europako Egonkortasun Mekanismoko kreditu-lerroak erabili beharko dira –erreskate-funtsa– (240.000 milioi gutxi gorabehera), Europako Inbertsio Bankuko 200.000 milioi bitarte mobilizatu beharko dira eta langabeziaren aurkako laguntza-funts bat (SURE izena eman zaiona) aktibatuko beharko da.

Hori guztia ikusita, honako galdera hau aurkezten da, idatziz erantzun dakion:

Gobernuak ba al du asmorik Espainiako Gobernuari eskatzeko Nafarroari utz diezaion Estatuak baliatuko dituen europar funts horietan parte hartzea, halako moduan non gure erkidegoak Covid-19aren krisitik heldu diren ondorioei aurre egite aldera Europako erakundeek bideratutako laguntza-pakete horren laguntza ekonomiko eta finantzarioa jaso ahalko baitu?

Iruñean, 2020ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, hizkuntza eskolen azterketei buruzkoa.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkezturiko galdera, hizkuntza eskolen azterketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Uxue Barkos Berruezo, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

– Covid-19aren pandemiak eragindako alarma egoeraren esparruan, eta kontuan harturik Nafarroako hizkuntza eskoletan maiatzaren 21ean amaituko direla eskolak eta maiatzaren 22rako aurreikusten dela azterketen hasiera eta, halaber, ikasturtearen amaierarako jarraibideak apirilaren 27an, astelehenarekin, jakinarazi zirela eta ez lehenago. Kontuan harturik, aldi berean, zenbait hedabideren arabera, Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialek proposatu dutela probak irailera arte geroratzea, beste erkidego batzuetan egin duten bezala –besteak beste Euskadi, Valentzia, Galizia edo Aragoi aipa daitezke– eta Hizkuntza Eskola Ofizialek berek adierazten dutenaren arabera denborarik izan ez dutenez planifikazio egokia egiteko parte hartuko duten guztien osasuna bermatzen aldera, gaur egungo inguruabarren ondorioz, aurreikusten al duzue azterketak irailera geroratzea?

– Hezkuntza Departamentuak hasieran adierazitako asmoarekin, alegia, aipatu azterketak maiatza-ekainean egitearekin, aurrera eginez gero, ahalbidetuko al zaie Hizkuntza Eskolako ardura-dunei segurtasun protokolo bat, berau aplikatzeko behar diren baliabide guztiekin batera?

– Noiz helaraziko zaizkie Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialei azterketak kudeatzeko jarraibideak zeinek kontuan edukiko dituzten gaur egungo egoerak eskatzen dituen segurtasun neurriak?

– Irakasleen kontratazioaren aldetik zein indartze jasoko dute Nafarroako hizkuntza eskolek azterketak egiteko?

– Departamentuaren jarraibideetan ahozko azterketak modu telematikoa egiteko aukera ematen da. Ikusirik Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikasleen inguruabar guztiz desberdinak – bizilekua, adina, egoera sozioekonomikoa eta gainerakoak– segurtasun kontuak direla-eta etxean gelditu eta azterketak modu telematikoa nahi duten baina horretarako baliabide egokirik ez dutenei nola bermatuko zaie probak modu horretan egin ahal izatea?

– Nolako neurriak hartuko ditu Hezkuntza Departamentuak azterketak egiteko eskubidea bermatzeko ikasleei, pandemiaren egungo egoeran, osasun bereziki kaltebera izateagatik edo familia zaintzeko betebeharrengatik azterketak egiteko prestatutako egoitzara agertuko ez diren ikasleei hain zuzen?

– Irakasle zein ikasleek ahalegin itzelak eginda ere, martxoaren erditik edukiak ezin izan dira ez eman ezta ikasi ere ohiko moduan. Horri gehituta, aurten beste trebetasun bat ebaluatzen da: ahozko nahiz idatzizko bitartekaritza, baina ezin izan da era egokian garatu, urtarrilera arte ez zelako jakin nolakoak izanen ziren proba horiek, eta orain, azterketak hasteko hiru aste baino gutxiago gelditzen direnean, Hizkuntza Eskola ofizialeko departamentu batzuetan ez dakite zein hizkuntzatan egin beharko duten proba hori (jakina, ikasleek ezin izan dute denbora nahikoan praktikatu trebetasun hori azkenean erabiliko den hizkuntzatan). Beste alde batetik, hizkuntza eskoletako irakasle zein ikasleek gaur egun ez dakite zein irizpide erabiliko den maila ebaluazio jarraituaren bidez igarotzeko. Baldintza horietan, eta kontuan harturik, nola ez, azterketetan frogatu behar den maila ez dela jaitziko, Hezkuntza Departamentuak uste al du ikasleek behar bezala prestatuta daudela azterketak egiteko?

– Azkenik, aipatu behar da joan den astelehenan bidalitako jarraibideetan premiatzen dela errepikatzea salbuespena izateko, justifikatu beharko baita Hezkuntza Departamentuko

Ikuskaritza Zerbitzuari txosten arrazoitua igorritz, derrigorrezko irakaskuntzako ikasleendako ezarri zen bezalaxe. Kontuan harturik Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikasleen profila, derrigorrezko irakaskuntzaren esparruan ez diren helduak baitaude, Hezkuntza Departamentuak uste al du Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakas-

leek ikasleek errepikatzea justifikatu behar dutela derrigorrezko irakaskuntzetako ikasleekin egiten den modu berean, hau da, kontuan harturik errepikatzea salbuespena izan behar dela?

Iruñean, 2020ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo
